

GIZARTE-BABESAREN KONTUA EUSKAL AEN 2013(A)

Euskal AEko gizarte-babesaren gastu guztia %1,9 gehitu zen 2013an

Biztanleko guztizko gastua, 7.658 euro 2013an, aurreko urtean baino %2,1 gehiago

Eustaten datuen arabera, Euskal AEn gizarte-babesaren baliabideetan 16.663,4 milioi gastatu ziren 2013an, aurreko urtean baino %1,9 gehiago, Gizarte Babesaren Estatistika Integratuen Europar Sistema (SEEPROS) jarraituz. 2013ko BPGren %25,22 da, 2008an baino ehuneko 5,4 puntu gehiago.

Urte-serie eskuragarrian gizarte-babesaren gastua etengabe hazi da: 2008an biztanleko 6.402 euro ziren; 2013an 7.658, ia %20 gehiago.

Administrazio-gastuak kendutako gizarte-prestazioen balioa: 16.375,3 milioi 2013an, %2,0ko hazkundera.

1. taula: Gizarte-babesaren datu eta adierazle nagusiak Euskal AEn. 2008-2013(A)

	2008	2009	2010	2011	2012	2013(A)	Aldakuntza-tasa %		
							11/10	12/11	13(A)/12
GIZARTE-BABESEKO GASTUA, GUZTIRA									
Milioi eurotan	13.798,4	15.399,4	15.970,6	16.134,5	16.348,7	16.663,4	1,0	1,3	1,9
Merkatu prezioko BPGaren %an	19,81	23,27	23,63	23,71	24,48	25,22	0,09	0,77	0,73*
Biztanleko eurotan	6.402	7.110	7.355	7.409	7.498	7.658	0,7	1,2	2,1
Biztanleko EAP	6.744	7.317	7.593	7.649	7.940	:	0,7	3,8	:
FUNTZIOEN ARABERAKO GIZARTE- PRESTAZIOETAKO GASTUA (milioi eurotan)									
GUZTIRA	13.499,4	15.065,9	15.653,6	15.815,5	16.049,6	16.375,3	1,0	1,5	2,0
Gaixotasuna / Osasun-laguntza	4.168,2	4.461,4	4.443,0	4.370,2	4.150,8	4.103,5	-1,6	-5,0	-1,1
Zahartasuna	5.229,6	5.636,8	6.004,2	6.226,7	6.458,5	6.737,9	3,7	3,7	4,3
Langabezia	1.026,6	1.635,0	1.680,6	1.612,3	1.774,3	1.852,7	-4,1	10,0	4,4
Beste batzuk	3.075,0	3.332,6	3.525,7	3.606,3	3.666,0	3.681,2	2,3	1,7	0,4
ADIERAZLEAK (eurotan)									
Gizarte-prestazioetako gastua, biztanleko	6.263	6.956	7.209	7.262	7.361	7.526	0,7	1,4	2,2
Gizarte-prestazioetako gastua, biztanleko eta EAPn	6.598	7.159	7.442	7.498	7.795	:	0,7	4,0	:
"Gaixotasun / osasun-laguntzaren" gastua, biztanleko	1.934	2.060	2.046	2.007	1.904	1.886	-1,9	-5,1	-0,9
"Langabeziaren" gastua, erregistratuta dagoen langabetuko	12.134	13.569	12.693	11.112	10.925	10.563	-12,5	-1,7	-3,3
BPG KSE2010. 2010 oinarri (milioi euro)	69.648,3	66.187,2	67.595,6	68.041,7	66.776,0	66.081,1	0,7	-1,9	-1,0
Biztanleria (01-07)	2.155.349	2.165.991	2.171.536	2.177.812	2.180.270	2.175.913	0,3	0,1	-0,2

(*) aldea ehuneko puntuetan

: ez dago


Iturria: Eustat. Gizarte-babesaren kontua

Prestazio-gastuari funtzioen arabera begiratzuz gero: Zahartzaroak, zeinak barne dituen pentsioak, ostatua eta etxeko artatzea, izan zuen gasturik handiena, 6.738 milioi 2013an; %3,7ko hazkundera 2011n eta 2012an eta %4,3koa 2013an.

Gaixotasunak/osasun arreta funtzioaren gastua, bigarrena gastu-bolumenean, 4.103 milioi 2013an; 2012an baino %-5,0 eta 2013an baino %-1,1. Behin-betiko azken datuak 2012koak dira, eta horien arabera jaitsiera izan zen aldi baterako ezgaitasun prestazioak eskudirutan %18,3 murriztu zirelako eta prestazio farmazeutikoak %7,6.

Langabezia funtzioaren gastuaren -langabezia prestazioak, enplegu sustatzea eta prestakuntza- bilakaera irregularragoa da. 2009an %+59,3; 2010ean %+3,4; 2011n %-4,1. 2012an %+10,0; 2013an %+4,4.

1. grafikoa. Gizarte-prestazioetako gastuaren banaketa, funtzioen arabera. 2012



Iturria: Eustat. Gizarte-babesaren kontua

Gizarte-prestazioetako gastu gehiena, bi funtziotan: Zahartzaroa, 6.458,5 milioi 2012an (behin betiko datuak), prestazio guztien %40,2; Gaixotasunak/osasun arreta, 4.150,8 milioi 2012an, %25,9. Bien artean, gastuaren %66,1.

Ondoren Langabezia dugu, gastuaren %11,1. Etxebizitza eta Gizarte Bazterkeriaren prestazio-gastua, 558,6 milioi, guztiaren %3,5.

Gizarte-prestazioetan gastua duten **erakunde-unitateei** dagokienez, eskumena duten administrazio publikoek egindakoaren %60,6 izan zen 2012an, 2011ren aldean %3,1 gehituz; Gizarte Segurantzako Sistemari eta Estatuaren Administrazioari egiten da; hazkundera Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak pentsio eta prestazioetan eginiko gastuari (%+2,9) zor izan zitzaion.


2. taula: Erakundeetako unitate taldearen eta urtearen arabera gastua (milioi €). 2008-2012

	2008	2009	2010	2011	2011	Urteko aldakuntza-tasa %			
						09/08	10/09	11/10	12/11
Gizarte Segurantzaren sistema eta Estatuko administrazioa	8.168,9	9.125,4	9.543,2	9.611,9	9.910,0	11,7	4,6	0,7	3,1
Euskal administrazioak	4.521,8	5.024,1	5.130,2	5.240,9	5.175,5	11,1	2,1	2,2	-1,2
Erakunde pribatuak	1.107,7	1.249,9	1.297,2	1.281,7	1.263,3	12,8	3,8	-1,2	-1,4
Gizarte-babeseko gastua, guztira	13.798,4	15.399,4	15.970,6	16.134,5	16.348,7	11,6	3,7	1,0	1,3

Iturria: Eustat. Gizarte-babesaren kontua

Euskal Administrazioek eginiko gastua, 5.175,5 milioi (%31,7) 2012an, 2011n baino %1,2 gutxiago. Euskal Administrazioak taldearen barruan gizarte-zerbitzuen sistema publikoa da, Eusko Jaurlaritzarena: Lanbide, Foru-aldundiak eta Tokiko Administrazioak. Gastua 1.784,8 milioi izan ziren 2011n eta 1.807,3 (%+1,3) 2012an. Euskal Administrazioen gastuaren barruan osasun sistema publikoarena dago: 3.428,5 milioi 2011n eta 3.344,9 (%-2,4) 2012an.

2. grafikoa. Gizarte Babesaren Gastua, biztanleko eta erosteko ahalmenaren parekotasunean (EAP)



Iturria: Eustat. Gizarte-babesaren kontua eta Eurostat (2014/11/12)

Adierazle nagusiei begiratuz gero, Eurostatek argitaratutako azken datuekin, Euskal AEko gizarte-babesaren biztanleko gastua 2012an, Eroste Ahalmenaren Parekotasunean, (EAP), 7.940 euro; 27-EBko batez bestekoaren gainetik 2009tik, eta Espainiako batez bestekoaren (6.027) oso gainetik.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko gizarte-babesaren kontuari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko gizarte-babesaren kontuari buruzko datu-bankua

[Gizarte babesaren kontuaren ohar metodologikoa](#)